



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDA

Uda ohikoa edo hezea izan zen orokorrean, baina kalifikazioa ezberdina izan zen eskualde batzuetatik besteetara. Batez besteko tenperaturari dagokionez, uda oso beroa izan zen leku guztietan. Izatez, aurreko mendeko erdialdetik hasita, hirugarren udarik beroena izan zen, 2022ko eta 2003ko udan atzetik.

Muturreko egoerei dagokienez, udan abisu ugari igorri ziren. Ekainean eta uztailaren hasieran hirietan eta landa-zonetan kalte handiak sortu zituzten zaparrada trumoitsoak eta txingorra izan ziren nagusi. Gero, beroak hartu zuen protagonismoa eta abuztuan bi alarma gorri igorri ziren muturreko tenperatura oso altuengatik, hilaren 9an eta 23an, hain zuzen ere. Udan bero-bolada bakarra izan zen, hilaren 18tik 24ra bitartean, baina ez zuen berdin eragin eskualde guztietan, gogorragoa izan baitzen Ebro ondoko eskualdean. Zorionez, baso-suteak urriak izan ziren, abuztuko zenbait egunetan egoera aproposa izan arren.

Prezipitazioa

Udan pilatutako euriaren arabera, urtaroa ohikoa edo hezea izan zen. Hala ere, zenbait lekutan lehorra izan zen, esate baterako Goierri, Arabako Lautadaren mendebaldean edo Trebiñun. Beste leku batzuetan, ordea, oso hezea izan zen, hala nola Gipuzkoako ipar-ekialdeko mendi inguruetan edo Gaubean. Kalifikazio ezberdinak izan ziren, beraz, udan izandako zaparrada trumoitso ugarien ondorioz.

Euri-eremuek ohiko itxura hartu zuten, baina muturreko balioen arteko alde handiagoarekin. Horrela, Gipuzkoako ekialdean egin zuen euri gehien, alde handiarekin gainera (Eskas 737.8 mm, Añarbe 522.6 mm, Ameraun 425.9 mm, Behobia 365.4 mm). Gipuzkoako kostaldean eta barnealdean euria askoz urriagoa izan zen (Andoain 334 mm, Aizarnazabal 312.8 mm, Zegama 296.7 mm, Arrasate 175.7 mm). Bizkaian, barnealdeko mendi inguruetan eta kostaldean egin zuen euri gehien (Oiz 320.9 mm, Berriatua 280.9 mm, Urkiola 280.7 mm, Matxitxako 275.5 mm). Bilbo Handian euri gutxiago egin zuen (Abusu 205 mm, Derio 171.7 mm) eta Enkarterrietan apur bat gehiago (Balmaseda 223.7 mm, Zalla 216.1 mm). Arabako Ibarretan, Trebiñun eta Arabako Errioxan 100 mm baino gutxiago pilatu ziren (Zambrana 80.1 mm, Subijana 81 mm, Trebiño 88.5 mm, Nanclares 90.9 mm, Moreda 94.7 mm, Páganos 94.9 mm). Mende honetako beste udekin alderatuz eta prezipitazioari dagokionez, 2023koa erdialdeko postuetan kokatzen da.

Hilabetez hilabete ere alde handiak izan ziren. Ekaina hezea edo oso hezea izan zen eta uda osoan pilatutakoaren erdia baino gehiago pilatu zen orduan, Arabako Errioxaren kasuan uda osoan pilatutakoaren % 90a. Uztaila lehorra edo oso lehorra izan zen orokorrean, baina salbuespenak izan ziren. Abuztua oso



heterogeneoa izan zen: kostaldean hezea edo oso hezea izan zen, isurialdeen banalerroan ohikoa eta Ebro ondoko eskualdean oso lehorra.

Euri-egunen kopurua ohikoa dena baino handiagoa izan zen kostaldean (Abusu 25, Derio 19, Lasarte 33, Miramon 36 euri-egun). Mediterraneo isurialdean ohikoa (Arkauti 13, Abetxuko 9 euri-egun).

Prezipitazioarekin loturiko gertaerak ugariagoak izan ziren ekainean, 12 abisu horiekin. Ekaineko 11 egunetan euria oso ugaria (> 30 mm) izan zen eta horietako hirutan 60 mm baino gehiago pilatu ziren. Hilabetearen zehar prezipitazio-errekorrak gaititu ziren, bai ekainekoak, baita urte osokoak ere, eta denbora-eskala guztietan (egun batekoak, ordubeteak eta hamar minutukoak). Uztailari dagokionez, hilaren 6an izandako gertaera izan zen aipagarriena eta, abuztuaren, zenbait egunetan zaparrada handiak bota zituen arren, lasaiagoa izan zen.

Zaparrada mardulekin batera txingor handia bota zuen noizbehinka. Txingor horrek errepide-mozteak, hainbat herritan istripu ugari eta landa askotan kalteak eragin zituen. Gertaera horien artean aipagarrienak ondoren komentatuko direnak dira.

Ekainaren 11an, arratsaldean, Arabako Mendialdean kokatutako Navarrete estazioan euri-jasa (> 60 mm/h) izan zen, Eusko Jaurlaritzaren estazio meteorologiko automatikoetan neurtutako bigarren baliorik altuena (74.4 mm/h), 2011ko maiatzaren 30ean Sarrian neurtutakoaren ondoren (115 mm/h). Egun osoan estazio horretan 100 mm baino gehiago pilatu ziren.

Ekainaren 18an Enkarterrietan eta Bilbo Handian izan ziren ekaitzik handienak. Eguerditik aurrera zenbait estazioetan zaparrada oso handiak bota zituen (Balmaseda 39.3 mm/h, Abusu 38 mm/h, Venta Alta 32.1 mm/h, Ordunte 30.8 mm/h, Galdakao 30.6 mm/h). Kasu guztietan serie historikoetako urteko errekorrak gaititu ziren ordubetearen pilatu zen prezipitazioarekin. Horrez gain, egun osoan Abusun 60 mm baino gehiago pilatu ziren (61.8 mm), baita Venta Altan ere (60.8 mm).

Ekainaren 20an, goizean, ekaitz handia izan zen Gorbeia mendiaren inguruan eta txingor handia bota zuen (Sarria 15.7 mm/h, Urkizu 14 mm/h, Altube 13.6 mm/h), baita kostaldetik gertuago dauden zenbait lekutan ere, esate baterako Alzolan (10.2 mm/10 min, bere serieko errekorra). Goizean goiz Zumaian txingor handia bota zuen eta hiru zauritu izan ziren, baita kalte material handiak ere.

Uztailaren 6an, arratsaldean, zaparrada trumoiatsu handiak bota zituen Arabako Ibarretan, Arabako Lautadan eta Arabako Mendialdean (Kanpezu 27.4 mm/h, Arkauti 26.7 mm/h, Ozaeta 26.6 mm/h, Etura 20.9 mm/h, Tobillas 20.6 mm/h, Ilarduia 19.2 mm/h), zaparradekin batera 5 cm inguruko txingor aleak bota zituen eta Vitoria-Gasteizen kalte ugari eragin zituen. Pilatutakoa ezohikoa izan zen eta Arkautin, Gasteizko kanpoaldean, bere serie historikoko errekorra gaititu zen, 66.9 mm pilatu baitziren han.



Abuztuaren 26an Bizkaiko kostaldean itsasaldean jatorria zuten zaparrada trumoiatsuak bota zituen, azken orduetan handiak (Bermeo 21.5 mm/h, Arteaga 11.9 mm/h) izan ziren. Abuztuaren 27an Kantauri isurialdearen ekialdean ere bota zituen zaparradak; goizean Andoainen handiak (16.6 mm/h). Abuztuaren 28an, arratsalde-gau partean, Gipuzkoako ipar-ekialdean zaparrada handiak bota zituen (Añarbe 25 mm/h, Eskas 18.6 mm/h, Oiartzun 14.8 mm/h).

1 Taula. Azken urteetan udan pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	148.7	76.1	157.9	124.1	84.5	89.1	147.6	75.8	105.2	104.6
Lasarte	253.0	213.5	241.3	242.8	241.1	218.0	279.2	150.7	245.6	248.1
Arrasate	155.3	76.6	112.0	126.6	135.3	138.9	144.3	101.9	149.9	140
Abetxuko	61.9	40.1	98.2	82.8	82.6	107.2	83.5	59.0	101.6	92.5
Párganos	95.7	28.7	107.9	103.7	80.3	97.2	126.6	21.4	152.8	45.2

Tenperatura

Neurtutako batez besteko tenperaturaren arabera, uda oso beroa izan zen, 1981-2010 denboraldi normalarekin alderatu ondoren. Kostaldean batez besteko tenperatura 20-21 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan 19 °C ingurukoa, hau da, lurralde osorako ohikoa dena baino 1.6 °C altuagoa. Balio hauek kontuan izanik, behintzat 1961 urtetik aurrera (orduan hasi baitzen serie instrumental adierazgarria) izandako hirugarren udarik beroena izan zen, 2022ko eta 2003ko uden atzetik. Gasteizko estazio adierazgarrian, ordea, bostgarren udarik beroena izan zen, kasu horretan, 2022 eta 2003koari, 2015ekoa eta 2006koa gehitu behar bazaizkie.

Hilabetez hilabete, ez zen alde handirik izan: ekaina eta abuztua oso beroak izan ziren, eta uztaila beroa.

Ekainean tenperatura altua izan zen, baina ez zen bero-gertaera aipagarriarik jazo. Hilaren 16an eta 24an bero egin zuen, batez ere barnealdean.

Uztailan muturreko tenperatura altuagatik igorritako lehen abisuak aktibatu ziren, baina bero-boladak urriak izan ziren orokorrean eta ez zuten berdin eragin eskualde guztietan. Uztailaren 7an beroa kostaldera, Enkarterrietara eta Aiaraldera iritsi zen (Sodupe-Cadagua 35.1 °C, Oleta 34.4 °C, Arteaga 34.1 °C, Gardea 33.9 °C, Oiartzun 33.7 °C). Uztailaren 14an eskualde gehiagotan egin zuen beroa eta hilabeteko egunik beroena izan zen (Gardea 38 °C, Alegia 38 °C, Orozko 37.6 °C, Sodupe-Cadagua 37.2 °C, San Prudentzio 37.2 °C, Estanda 37.2 °C, Zambrana 37 °C). Uztailaren 18an ekialdeko fluxuak Araba ekialdean goizaldetik tenperaturaren igoera bultzatu zuen (Zambrana 38.4 °C, Párganos 37.4 °C, Kanpezu 36.9 °C, Ilarduia 35.7 °C, Nanclares 35.6 °C).

Abuztuan hiru bero-gertaera izan ziren, hilaren 9an, 18an eta 23an, azken hau apartekoa. Kostaldean hiru egun horietan baino ez zuen egin beroa, Ebro ondoko eskualdean, ordea, hilaren 9tik 24ra egin zuen beroa, 30 °C-tik gorako temperatura maximoekin, altuenak hilaren 24an neurtu ziren.

Abuztuaren 9an temperatura maximoak 40 °C-tik gorakoak izan ziren lehen aldiz uda honetan, Aiaraldean eta Enkarterrietan, baita Kantauri barnealdeko beste zenbait lekutan ere (Gardea 43.4 °C, Sodupe-Cadagua 43.2 °C, Zalla 41.9 °C, Saratxo 41.7 °C, Orozko 41.4 °C, Igorre 41 °C, San Prudentzio 40.9 °C, Areta 40.6 °C). Bilboko eta Gasteizko temperatura maximoak ere 40 °C ingurukoak izan ziren (Galdakao 40.2 °C, Arkauti, 39.2 °C).

Abuztuaren 18tik 24ra tenperaturak nabarmen egin zuen gora, eta abisuak eta alertak igorri ziren temperatura altu iraunkorrenatik, uda honetan igorritako bakarra. Barnealdean bakarrik igorri ziren hasieran, batez ere Mediterraneo isurialdean, baina egunak pasa ahala beroa kostaldean ere egin zuen. Bero-boladaren une gorena abuztuaren 23a izan zen. Temperatura maximoen efemeride ugari izan ziren egun horretan, batez ere Ibaizabalgo arroan, Bilbo barne; efemeride horien artean, Euskalmeteko sarean inoiz neurtutako tenperaturarik altuena, Sodupe-Cadaguako estazioan neurtutako 45.6 °C-ko maximoa. Arro horretan temperatura maximoek 40 °C-ko atalasea aise gainditu zuten (Gardea 44.6 °C, Derio 43.9 °C, Igorre 43.3 °C), baita Gipuzkoako zenbait lekutan ere (Ibai Eder 42.1 °C, San Prudentzio 42.1 °C, Estanda 41.5 °C). Horrez gain, gaua tropikala izan zen lurralde osoan, iragate-zonako eta Kantauri barnealdeko leku bakan batzuetan izan ezik. Zenbait tokitan gaua ekuatoriala izan zen, batez ere kostaldean, Arabako Errioxan eta mendi gailurretan (Jaizkibel 29.6 °C, La Garbea 28.4 °C, Eskas 28 °C, Untzueta 27.8 °C, Zegama 27.7 °C, Ilarduia 27.6 °C, Higer 27.3 °C, Oiz 27.2 °C, Matxitxako 26.5 °C, Cerroja 26.5 °C, Moreda 25.9 °C).

Abuztuaren 24an kostaldeko temperatura maximoak ez ziren hain altuak izan, baina Mediterraneo isurialdean eta Goierri oso altuak izan ziren berriro, aurreko egunekoak baino altuagoak (Zambrana 41.1 °C, Páganos 41 °C, Arkauti 40.8 °C, Kanpezu 40.5 °C, Salvatierra 40.1 °C, Agauntza 39.7 °C). Temperatura maximoen efemeride batzuk ere izan ziren, esate baterako Paganoseko estazioan (41 °C) eta Zaldiaran mendian (38.9 °C, 980 metrora).

Tenperatura altuagatik, hezetasun erlatibo baxuagatik eta hego-haizeagatik, baso-sute arriskua altua izan zen egun horietan eta 4 abisu hori igorri ziren horregatik. Zorionez, Karrantzan baino ez zen baso-sutea gertatu; abuztuaren 9an Basaurin eta Galdakaon sastraketan ere sute txikiak izan ziren.

Tenperatura minimoei dagokienez, uztailaren bigarren hamabostaldian barnealdeko minimoak pixkanaka-pixkanaka jaisten joan ziren eta balio baxuenak uztailaren 23an neurtu ziren (Pagoeta 7.4 °C, Navarrete 8.3 °C, Otxandio 8.4 °C, Salvatierra 8.5 °C, Tobillas 8.9 °C). Abuztuaren 25etik aurrera aire-masa polar atlantikoa zabaldu zen gurean eta temperatura ohikoa dena baino baxuagoa izan zen. Hala ere, hilaren 5ekoak (Pagoeta 4.3 °C, Tobillas 5.2 °C,



Espejo 5.4 °C) eta 7koak (Salvatierra 4.8 °C, Altube 6.2 °C, Etura 6.6 °C) izan ziren hilabeteko tenperatura baxuenak.

Bukatzeko, udan kostaldeko intsolazioa ohikoa dena baino apur bat txikiago izan zen udan, % 9 txikiagoa; barnealdean, berriz, ohikoa izan zen eta Arabako Errioxan % 10 handiagoa. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 495 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 530 eta Gasteizen 709.

Taula 2: Udan, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	21.4	21.9	19.2	19.9	20.1	20.7	19.9	20.6	20.8	20.0
Lasarte	20.2	20.7	18.5	19.4	19.4	19.9	19.7	19.4	19.8	19.0
Arrasate	19.8	20.6	18.2	18.3	18.8	19.1	19.2	18.7	19.4	18.0
Abetxuko	19.2	20.0	17.5	18.0	19.0	19.0	19.2	18.8	19.7	18.2
Párganos	21.5	22.6	19.7	19.8	20.9	20.1	20.8	20.3	21.0	19.3


Udako oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: Udako balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako auri max. l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	21.4	25.7	42.4	18.0	14.7	0	148.7	27.8	24
Lasarte	20.2	24.7	38.9	16.4	10.1	0	253.0	38.1	32
Arrasate	19.8	26.0	42.0	15.2	10.0	0	155.3	25.8	22
Abetxuko	19.2	27.5	40.0	13.2	7.3	0	61.9	18.8	9
Párganos	21.5	29.1	41.0	15.3	9.3	0	95.7	32.2	11




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak





Prezipitazioaren jokaera





Muturreko egoerak

Udan 51 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 19 prezipitazio handiagatik, 3 olatuen altueragatik nabigaziorako, 2 kostaldeko inpaktuagatik, 2 enbatagatik, 8 tenperatura altu iraunkoragatik, 13 muturreko tenperatura oso altuagatik eta 4 baso-sute arriskuagatik.

Horrez gain, 10 alerta laranja igorri ziren, guztiak abuztuan; 1 olatuen altueragatik nabigaziorako, 4 tenperatura altu iraunkoragatik, 4 muturreko tenperatura oso altuagatik eta 1 baso-sute arriskuagatik.

Bukatzeko, bi alarma gorri igorri ziren muturreko tenperatura oso altuengatik, guztiak abuztuan.

Ondoren, gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Ekaina

- Hilaren 11an, egunaren hasieran, Burgosen garatutako trumoi-ekaitzak ipar/ipar-ekialdera mugitu eta Araban zaparrada ertain batzuk bota zituen. Egunaren erdiko orduetan atertzera egin zuen eta giroa lasaiagoa izan zen, baina arratsaldearen hasieran trumoi-ekaitzak garatu ziren berriro, Arabako mendebaldean hain zuzen ere, baita trumoi-ekaitz isolatu bat Lizarrako iparraldean ere. Arratsaldea aurrera joan ahala bi ekaitz-eremu horiek uztartuz joan ziren Toloño mendilerroaren inguruan, Herrerako mendatetik Kanpezuraino. Navarrete inguruan trumoi-ekaitza oso bortitza izan zen eta euri-jasa izan zen (74.4 mm ordubetea eta hamar minutuan 10 mm baino gehiago lau aldiz pilatu ziren, ia 20 mm zenbait kasutan). Ilunabar aldera trumoi-ekaitza ipar-ekialdera mugitu zen eta Gipuzkoako hego-ekialdean indartu egin zen berriro, zaparrada oso handi batekin Zegaman. Egun osoan Navarreteko estazioan ia 100 mm pilatu ziren.

Hilaren 12an, egunaren lehenengo partean ateri egon zen orokorrean, baina arratsaldean mendebaldetik eta hego-mendebaldetik etorritako trumoi-ekaitzak Gorbeia mendiaren inguruan indartu egin ziren. Hainbat tokitan zaparrada handiak bota zituen, zenbait lekutan 25 mm/h ingurukoak, baina laburrak. Horregatik, aipagarriagoak izan ziren hamar minutuan pilatutako kantitateak (8 estaziotan 10 mm baino gehiago, haietako zenbaitetan 15 mm inguru) ordubetea pilatutakoak baino. Arratsaldearen amaieran trumoi-ekaitz horiek desegin ziren baina Gipuzkoan euri txiki-ertaina egiten jarraitu zuen.

Hilaren 13an itsasaldetik etorri ziren zaparradak eta horregatik gehienak Kantauri isurialdean bota zituen, haietako batzuk trumoitsuak. Gaueko lehen orduetan Behobian zaparrada handia bota zuen (14 mm 10 minutuan, 15.4



mm ordubetea). Egun horretan Eskaseko estazioan 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan (75.2 mm).

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 11 (mm/10 min)	Ordua UTC
Navarrete	19.8	18:40
Zegama	13.4	19:50
Agauntza	10.9	20:30
Araxes	10.9	21:10

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 11 (mm/h)	Ordua UTC
Navarrete	74.4	19:10
Zegama	36.1	20:20
Agauntza	27.4	21:00
Araxes	26.7	21:50
Salvatierra	22.6	20:10
Kapildui	22.2	19:50
Kanpezu	15.7	19:10

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 11 (mm/24 h)
Navarrete	94.4

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 12 (mm/10 min)	Ordua UTC
Cerroja	14.5	15:00
Oñati	14.2	17:20
Nanclares	12.9	16:50
San Prudentzio	12.7	17:20
Balmaseda	12	15:30
Aitzu	11.2	17:50
Urkiola	10.9	16:50
Bidania	10	18:10

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 12 (mm/h)	Ordua UTC
Nanclares	25.9	17:30
Urkiola	24.9	17:40
San Prudentzio	24.8	18:10
Goiain	23	17:40
Oñati	22.2	18:10
Aitzu	21.5	18:20
Balmaseda	21.4	16:00
Bidania	20.4	18:50
Cerroja	18	15:40



Aixola	17.4	18:30
Espejo	17.4	17:30
Mallabia	15.4	18:20

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 13 (mm/10 min)	Ordua UTC
Behobia	14	19:00

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 13 (mm/h)	Ordua UTC
Behobia	15.4	19:10

Igandea, hilak 11: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 12etatik 21etara ordu lokala. Astelehena, hilak 12: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 15etatik 22etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 13: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Kantauri isurialdean 11etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 17tik aurrera trumoi-ekaitzak izan ziren berriro. Egun horretan, eguerditik aurrera trumoi-ekaitz lerro batek Araba zeharkatu zuen, ipar-ekialdera bidean, tximista askorekin batera. Gipuzkoako barnealdean ere bota zituen zaparrada handiak. Arratsaldearen amaieran trumoi-ekaitzak desegin ziren.

Hilaren 18an, egunaren hasieran, Nafarroan trumoi-ekaitzak izan ziren, baina ez zuten eragin handirik izan EAEn. Goizean atertzera egin zuen, baina egunaren bigarren partean trumoi-ekaitzak sarri izan ziren eta lurralde osoan zabaldu ziren. Lehenengoek Enkarterrietan eta Bilbo Handian jo zuten eta Venta Altako estazioan 17.1 mm pilatu ziren 10 minutuan. Arratsaldea aurrera egin ahala trumoi-ekaitzak Kantauri isurialdeko ekialdera hedatu ziren; Araban trumoi-ekaitzak ahulagoak eta isolatuagoak izan ziren, ordea. Hilaren 18an Kantauri isurialdeko 15 estaziotan 10 mm baino gehiago pilatu ziren 10 minutuan eta Bizkaiko 7 estaziotan zaparradak oso handiak izan ziren (> 30 mm/h). Horrez gain, Bilbo inguruan 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan, Venta Altan eta Abusun hain zuzen ere.

Hilaren 19an, goizaldean, zaparrada batzuk gure lurraldea zeharkatu zuten, baina goizean atertu egin zuen. Arratsaldean ipar-mendebaldean trumoi-ekaitzak izan ziren berriro (Saratxon 10 mm baino gehiago pilatu ziren 10 minutuan) eta gauean Arabar Errioxan, Arabako Mendialdean eta Arabako Lautadaren ekialdean, zaparrada handiekin Paganosen eta Navarreten.

Hilaren 20an egoera ezohikoa izan zen, trumoi-ekaitz handienak goizean goiz izan ziren eta. Orduan Gorbeia mendiaren inguruan izandako zaparradak txingor handiarekin batera bota zituen. Sarrian zaparrada handia bota zuen



eta beste 4 estaziotan 10 mm baino gehiago pilatu ziren 10 minutuan. Trumoi-ekaitz hori pasa ondoren izandako trumoi-ekaitzak ez ziren hain aipagarriak izan baina han-hemenka zaparrada trumoitsuak bota zituen oraindik.

Hilaren 21ean, arratsaldean izandako trumoi-ekaitz gehienak Nafarroan eta Errioxan izan ziren baina egunaren amaieran Arabako hegoaldean ere jo zuen ekaitzak, zaparrada oso handiarekin Moredan. Errioxan, Ebro ibaiaren beste aldean, uholdeak izan ziren, Logroño hiriburua barne, Moredatik oso hurbil. Hilaren 22an, goizaldean, Kantauri isurialdean ezegonkortasuna handia izan zen oraindik eta Eskasen, Ameraunen eta Añarben zaparrada handiak bota zituen. Eguna aurrera joan ahala egonkortasuna areagotuz joan zen; goizean goiz iparraldean zirimiria egin zuen, baina arratsaldean atertu eta ostarteak zabaldu ziren.

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 17 (mm/10 min)	Ordua UTC
Arkauti	12.1	15:00

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 17 (mm/h)	Ordua UTC
Tobillas	26.8	14:50
Arkauti	18.8	15:40
Herrera	16	15:10
Zizurkil	15.8	16:40
Andoain	15.4	16:40
San Prudentzio	15.1	16:00

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 18 (mm/10 min)	Ordua UTC
Venta Alta	17.1	13:40
Otxandio	14.3	17:10
Aizarnazabal	13.9	16:10
Sodupe-Cadagua	13.3	13:00
Muxika	13	14:00
Inurritza	13	16:10
Arrasate	12.3	17:30
Oiartzun	12.3	16:40
Oñati	12.2	16:30
Galdakao	12.1	15:00
Abusu	11.2	13:10
Mañaria	10.9	16:50
Balmaseda	10.7	13:30
Iurreta	10.4	16:50
San Prudentzio	10.4	17:40



Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 18 (mm/h)	Ordua UTC
Balmaseda	39.3	13:30
Abusu	38	14:00
Zalla	33.3	13:40
Venta Alta	32.1	15:50
Ordunte	30.8	13:00
Galdakao	30.6	15:50
Elorrio	30.6	17:20

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 18 (mm/24 h)
Abusu	61.7
Venta Alta	60.8

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 19 (mm/10 min)	Ordua UTC
Páganos	13.2	21:20
Navarrete	10.5	21:30
Saratxo	10.5	16:30

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 19 (mm/h)	Ordua UTC
Páganos	23.8	21:50
Navarrete	15.1	22:00

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 20 (mm/10 min)	Ordua UTC
Sarria	12.4	06:40
Altzola	12.2	07:20
Amorebieta	12	00:30
Areta	10.9	03:00

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 20 (mm/h)	Ordua UTC
Sarria	15.7	07:10

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 21 (mm/h)	Ordua UTC
Moreda	31	21:00



Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 22 (mm/10 min)	Ordua UTC
Eskas	10	00:30

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 22 (mm/h)	Ordua UTC
Eskas	23.5	01:00
Ameraun	18.7	01:10
Añarbe	16.5	00:50

Larunbata, hilak 17: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.
Igandea, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 14etatik 24etara ordu lokala.
Astelehena, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.
Asteartea, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 08etatik 24etara ordu lokala.
Asteazkena, hilak 21: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.
Osteguna, hilak 22: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 00etatik 09etara ordu lokala.

Uztaila

- Goi-geruzetako ezegonkortasunaren eta egunean zehar pilotutako beroaren ondorioz, hilaren 6an eta 7an trumoi-ekaitzak izan ziren. Hilaren 6an trumoi-ekaitzak egunaren erdialdeko orduetan sortu ziren. Lehenik, Arabako Lautadako ekialdean eta Arabako Mendialdean eragina izan zuten, eta zenbait lekutan prezipitazioa handia izan zen, bereziki Ullibarri-Ganboa urtegiaren ekialdean, bertan ordubete luze iraun zuten zaparrada trumoitsuek. Hala ere, eguneko trumoi-ekaitz aipagarriena ordu batzuk beranduago gertatu zen. Araba mendebaldetik sartu zen eta lehenik, Gaubean zaparradak bota zituen eta txingorra egin zuen. Horren ostean, ekialderantz mugitu zen, beste trumoi-ekaitzak ez bezala, izan ere besteak ipar-ekialderantz mugitu ziren. Hala, Arabako Lautada mendebaldetik igaro zen eta azkenik Gasteizen indartu egin zen; zaparrada handiak bota zituen eta txingor ertain-handia bota zuen. Txingorrek Gasteizen hainbat arazo sortu zituen, bereziki ibilgailuetan, beirak eta karrozeriak hautsi zituen, etxabeak eta lokalak urak hartu zituen, eta leihoetan kalteak eragin zituen. Aldi berean, beste trumoi-ekaitz batek Arabako Mendialdean zaparrada handiak utzi zituen eta Kanpezun ia oso handiak izan ziren (27.4 mm/h, 14.8 mm/ 10 minutuan). Iluntzean trumoi-ekaitzek gutxitzera egin zuten, hala ere, egunaren amaieran oraindik zaparrada trumoitsu batzuk bota zituen Araba hegoaldean.

Hilaren 7an, hegoaldeko haizea gailendu zen eta Kantauri isurialdean bero handia egin zuen. Ondorioz, arratsaldearen hasieran trumoi-ekaitz batzuk bota zituen Enkarterrietan eta zenbait lekutan zaparradak handiak izan ziren

(Zalla 21.1 mm/h). Ondoren, trumoi-ekaitz horiek ipar-ekialdera mugitu ziren, baina Bilbo Handira iristerakoan desegin ziren, Trianoko mendia igaro ostean. Gero, Araba hego eta hego-ekialdetik beste trumoi-ekaitz bat igaro zen eta zaparrada ertain batzuk bota zituen. Arratsaldearen amaierarako trumoi-ekaitz guztiak desegin egin ziren.

Bi egun horietan botatako zaparradek eta txingorrek aseguratutako 7.643 hektareatan ezbeharrak eragin zituzten Araban (Agrosegurok emandako behin behineko datua, uztailak 10), gertakari horretan Estatu mailan ezbeharrak jasan zituen eremu zabalena izan zen. Ezbehar handienak neguko laboreetan izan ziren, oraindik uzta bildu gabe baitzegoen, baina beste laboreetan ere kalteak izan ziren, esaterako Arabako Errioxako mahastietan.

Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm/10 min)	Ordua UTC
Kanpezu	14.8	18:10
Ozaeta	12.7	18:50
Etura	12.5	18:50
Tobillas	12.4	17:30
Arkauti	11.9	18:30

Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm/h)	Ordua UTC
Kanpezu	27.4	18:40
Arkauti	26.7	17:00
Ozaeta	26.6	16:20
Etura	20.9	19:30
Tobillas	20.6	18:10
Ilarduia	19.2	15:50

Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm)
Ozaeta	77
Arkauti	66.9

Estazioa	Prezipitazioa hilak 7 (mm/h)	Ordua UTC
Zalla	21.1	14:20

Osteguna, hilak 6: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoako barnealdean eta Araban 15etatik 21etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 14an hodei gutxi izan zenez eta egunaren lehen zatian hegoaldeko haizea gailendu zenez eguna oso beroa izan zen denean. Hala ere, eguerditik aurrera haizeak iparraldera egin zuen, kostaldetik hasita, eta arratsaldeak aurrera egin ahala tenperatura jaitsiz joan zen. Zonalde guztietan maximoek 30 °C-ak gainditu zituzten eta Kantauri isurialdeko bailaretako zenbait lekutan



38 °C-ra heldu ziren, bai mendebaldean (Gardea), nahiz ekialdean (Alegia). Goiz sartu zuen iparraldeko haizea bolada gogorrekin ibili zen, eta goizean hego-haizearekin neurtutako haize-boladak gainditu zituen. Arratsaldean neurtutako iparraldeko haize-boladak bereziki Araban indartsuak izan ziren (Ilarduia 65.3 km/h, Subijana 62.1 km/h, Nanclares 60 km/h), baina Kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere nabaritu zen (Sodupe-Cadagua 47.3 km/h). Arratsaldean tenperaturak behera egin zuen arren, Arabako Errioxako toki batzuetan iluntzean oraindik 30 °C-tik gora zegoen tenperatura (Paganos 30.2 °C 22etan ordu lokala).

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 14 (°C)
Gardea	38
Alegia	38
Saratxo	37.7
Orozko	37.6
Sodupe-Cadagua	37.2
San Prudentzio	37.2
Estanda	37.2
Zambrana	37
Lasarte	36.4
Abetxuko	35.9
Zorrotza	33.2

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 14 (°C)
Kostaldea	33.3
Kantauri barnealdea	35.6
Iragate-zona	35.1
Ebro ondoko eskualdea	36.4

Ostirala, hilak 14: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik barnealdean 13etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 18an goizean Araba ekialdean eki/hego-ekialdeko haizea ibili zen, bolada gogor batzuekin eta ondorioz, zonalde horretan tenperatura oso altua izan zen goizean goizetik. Ilarduia estazioan goizaldean tenperatura oso azkar igo zen eta egunsentian 25 edo 26 °C ingurukoa izan zen. Goizean barnealdean tenperaturak goranzko bidean jarraitu zuen, ez ordea kostaldean, bertan laster haizea ipar-mendebaldetik finkatu zen eta tenperatura balio suabeetan geratu zen. Mediterraneo isurialdean egunaren erdialdeko orduak oso beroak izan ziren, baita Kantauriko bailaretako zenbait lekutan ere, hala ere, bertan ere, iparraldeko haizearen sarrerak tenperaturaren igoera gelditu zuen. Eguerditik aurrera Araba iparraldean haizea iparraldetik finkatuz joan zen eta nabarmen indartu zen (Subijana 65.6 km/h-ko 16etan ordu lokala, Ilarduia 62.8 km/h-ko 16:30ean ordu lokala). Iparraldeko haizea sartu ahala tenperatura azkar jaitsi zen; adibidez, Abetxukon ordubeteen tenperatura 34 °C-tik 28 °C-ra jaitsi zen. Arratsaldeak

aurrera egin ahala haizearen aldaketa Araba hegoaldera zabaldu zen; Arabako Errioxan 17etan ordu lokala gertatu zen. Bertan ere tenperaturak behera egin zuen haizea aldatu ostean, baina Paganosen gauerdia arte 30 °C-tik gorakoa izan zen, ez ordea Moredan, 20etan ordu lokala tenperatura 25 °C-koa baitzen.

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 18 (°C)
Zambrana	38.4
Páganos	37.4
Kanpezu	36.9
Moreda	36.8
Ilarduia	35.7
Nanclares	35.6
Trebiño	35.5
Espejo	35.4
Albaina	35.2
Salvatierra	35.1

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 18 (°C)
Kostaldea	23.3
Kantauri barnealdea	25.9
Iragate-zona	33.5
Ebro ondoko eskualdea	37.4

Asteartea, hilak 18: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik Ebro ondoko eskualdean 12etatik 17etara ordu lokala.

Abuztua

- Hilaren 2tik 4ra Kantauri itsasoan ipar-mendebaldeko haizea indartsua izan zen eta itsaso zakarra eragin zuen. Hilaren 2an, egunaren bigarren partean, olatuen altuera adierazgarriak gora egin zuen azkar eta gauean Donostiako buian 4 metrotik gorakoa izan zen (4.25 metro 22etan UTC), Pasaiaiko eta Bilboko portuetan 3 metrotik gorakoa. Hilaren 3an, goizaldean, gora egiten jarraitu zuen altuerak eta Donostiako buian 6 metro ingurukoa izan zen (6 metro 04etan UTC) eta portuetan 4 metrotik gorakoa (Bilbon 4.8 metro eta Pasaian 4.5 metro). Goizean jaitsi zen altuera eta gainerako orduetan buian 3.5 metro eta 4.5 metro artekoa izan zen, arratsaldearen hasieran Pasaiaiko Portuan 4.5 metrotik gorakoa (4.6 metro). Hilaren 4an, goizaldean eta goizean goiz Donostiako buian olatuen altuera 3.5 metrotik gorakoa izan zen oraindik (3.75 metro 00etan UTC) baina goizean jaitsi eta 3 metrotik behera kokatu zen. Egun horietako itsasgoren inguruan gainezka egiteko indizeak muturrekoak izan ziren. Hilaren 2an, arratsaldeko itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 5.8$ m eta $I_{max} = 6$ m izan ziren. Hilaren 3an

goizaldeko itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 6.3$ m eta $I_{\max} = 6.8$ m izan ziren, arratsaldekoan $I = 6.4$ m eta $I_{\max} = 6.8$ m.

Asteazkena, hilak 2: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 19etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 3: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 06etatik 08etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 20etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 4: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 9an, goizean goiz ibili zen hego-haizearen laguntzaz tenperaturak gora egin zuen azkar eta Kantauri barnealdean tenperatura maximoak 30°C -tik gorakoak izan ziren, batez ere mendebaldean, baina beste leku batzuetan ere bai (San Prudentzio, 40.9°C). Goiza aurrera joan ahala kostaldean brisa ibili zen eta horregatik kostaldeko tenperatura maximoak ez ziren hain altuak izan. Arratsaldeak aurrera egin ahala barnealdean ere aldatu zen haizea iparraldera, Kantauri barnealdetik hasita, eta tenperaturaren igoera eten egin zen, agertu ziren hauts-ganduaren eta goi-hodeien laguntzaz. Hodei horiek Mediterraneo isurialdean ere izan zuten eragina, baina zenbait lekutan tenperatura maximoak 40°C ingurukoak izan ziren, batez ere iragate-zonan (Gasteiz, 39.7°C ; Arkauti, 39.2°C ; Zambrana, 39.1°C). Tenperatura altuagatik, hezetasun baxuagatik eta hego-haizeagatik, baso-sute arriskua handia izan zen egun osoan eta Karrantzan sutea jazo zen. Basaurin eta Galdakaon sastraka batzuk erre egin ziren.

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 9 ($^{\circ}\text{C}$)
Gardea	43.4
Sodupe-Cadagua	43.2
Zalla	41.9
Saratxo	41.6
Orozko	41.4
Igorre	41.0
San Prudentzio	40.9
Areta	40.6
Galdakao	40.2

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 9 ($^{\circ}\text{C}$)
Kostaldea	31.8
Kantauri barnealde	37.6
Iragate-zona	38.2
Ebro ondoko eskualdea	37.7



Asteazkena, hilak 9: Alarma Gorria muturreko temperatura oso altuengatik barnealdean 15etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja muturreko temperatura oso altuengatik 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 18tik 24ra temperatura altua izan zen. Lehenengo egunetan barnealdean baino ez zuen beroa egin, batez ere Mediterraneo isurialdean, baina egunak pasa ahala kostaldean ere izan zen temperatura oso altua. Hilaren 18an Kantauri barnealdean temperatura maximoak 38 °C-tik gorakoak izan ziren. Hilaren 19an eta 20an, ordea, Arabako hegoaldean baino ez zuen beroa egin, Kantauri isurialdean iparraldeko haizearen laguntzaz temperaturak behera egin baitzuen, baita banalerrotik gertu dauden Mediterraneo isurialdeko eskualdeetan ere. Hilaren 21ean barnealdean beroa handiagoa izan zen, baina maximoak Mediterraneo isurialdean baino ez ziren muturrekoak izan. Ebro bailaran neurtu ziren temperatura maximo altuenak orokorrean, baina sareko altuena Salvatierra estazioan neurtu zen (38.7 °C), goizean eta arratsaldearen hasieran Arabako lautadaren ekialdean ibili zen eki/hego-ekialdeko haizearen laguntzaz. Hilaren 22an ez zen aldaketa handirik izan temperaturan; Lautadan eta iragate-zonan haizea iparraldera lehenago aldatu zen eta temperatura ez zen hain altua izan han horregatik, bai ordea Ebro bailaran, han maximoak 38 °C-tik gorakoak izan ziren berriro. Hilaren 23an hego-ekialdeko haizea izan nagusi eta horregatik egunik beroena izan zen Kantauri isurialdean. Hainbat tokitan temperatura maximoen efemerideak izan ziren, haien artean aipagarrienak Bilbo Handikoa eta Sodupe-Cadaguan neurtutakoa, 45.6 °C-ko maximoa, Euskalmeteko sarean neurtutako temperaturarik altuena. Gaua tropikala izan zen denean, iragate-zonako eta Kantauri barnealdeko zenbait lekutan izan ezik; kostaldeko zenbait lekutan temperatura 30 °C ingurukoa izan zen (Jaizkibel, 29.6 °C). Hilaren 24an haizea ipar-mendebaldera aldatuz joan zen, kostaldetik hasita, eta horregatik Kantauri isurialdeko temperatura maximoak nabarmen jaitsi ziren, batez ere mendebaldean. Hala ere, Gipuzkoako barnealdeko zenbait lekutan eta Mediterraneo isurialdean gertaera osoan izandako egunik beroena izan zen, temperatura maximoen efemeride batzuekin. Egunaren amaieran Araban ere iparraldera aldatu zen haizea eta eguneko temperatura minimoak azken orduan neurtu ziren, bero-bolada honi amaiera emanez.

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 18 (°C)
Igorre	39
Gardea	38.6
Amorebieta	38.4
Ibai Eder	38.4
Derio	38.2
Sodupe-Cadagua	38.2
Galdakao	38

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 19 (°C)
Zambrana	37.3
Moreda	37.1



Páganos	37
---------	----

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 20 (°C)
Kanpezu	37.2
Páganos	37.1
Moreda	37

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 21 (°C)
Salvatierra	38.7
Zambrana	38.4
Kanpezu	37,6
Trebiño	37.5
Espejo	37.4

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 21 (°C)
Kostaldea	25.9
Kantauri barnealdea	30.8
Iragate-zona	35.8
Ebro ondoko eskualdea	37.6

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 22 (°C)
Páganos	38.7
Kanpezu	38.4
Moreda	38.4
Antoñana	38

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 22 (°C)
Kostaldea	26.1
Kantauri barnealdea	30.6
Iragate-zona	33.2
Ebro ondoko eskualdea	37.9

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 23 (°C)
Sodupe-Cadagua	45.6
Gardea	44.6
Derio	43.9
Galdakao	43.8
Igorre	43.3
Orozko	42.7
Galindo	42.5
Zalla	42.5
Zorrotza	42.4
Saratxo	42.2



San Prudentzio	42.1
Ibai Eder	42.1
Zambrana	40.9

Zona	Temperatura maximoak, hilak 23 (°C)
Kostaldea	35.7
Kantauri barnealdea	41.2
Iragate-zona	39.3
Ebro ondoko eskualdea	39.8

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 24 (°C)
Zambrana	41,1
Párganos	41
San Prudentzio	40.9
Arkauti	40.8
Kanpezu	40.5
Moreda	40.4
Etura	40.4
Arrasate	40.3
Estanda	40.3

Zona	Temperatura maximoak, hilak 24 (°C)
Kostaldea	31
Kantauri barnealdea	35.1
Iragate-zona	39.4
Ebro ondoko eskualdea	40.8

Ostirala, hilak 18: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik barnealdean 14etatik 20etara ordu lokala. Larunbata, hilak 19: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 20: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 21: Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorragatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik iragaite-zonan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 14etatik 19etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 22: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik Ebro ondoko eskualdean 14etatik 20etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik iragaite-zonan 14etatik 19etara ordu lokala. Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorragatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik iragaite-zonan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Araban 12etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 23: Alarma Gorria muturreko tenperatura oso altuengatik 15etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik 12etatik 21etara ordu lokala. Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorragatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik kostaldean eta Kantauri barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.



Osteguna, hilak 24: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik kostaldean eta Kantauri barnealdean 14etatik 19etara ordu lokala. Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorragatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik kostaldean eta Kantauri barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: urtaroko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen urtaroko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* urtaroko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen urtaroko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* urtaroko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* urtaroen, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* urtaroen pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* urtaroen, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* urtaroen, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. Neurtutako tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. Neurtutako tenperatura erdiko balioaren inguruan dagoenean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. Neurtutako tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* Neurtutako tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora iristen ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* Prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea:* $f < \%20$. Prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. Prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. Prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora iristen ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.